

Saguak sortu dituzte bi arren genomekin

Txinako Zientzia Akademiako zientzialariek metodo bat asmatu dute saguen zelula ama arrak obulu bilakatzeko. Zelula horiek espermatozoideekin ohi bezala ernalduta, eta sagu eme baten umetokian ezarrita, gai izan dira garatzeko eta normal jaiotzeko. Ikertzaileek garbi utzi dute oraingoz pentsaezina dela metodo hori gizakietan erabiltzea.

Espermatozoideetatik obuluak eratortzeko prozesuan malformazioak eta akatsak sortzen dituzten geneak identifikatzea izan da lehen pausoa. Izan ere, espermatozoideek (baita obuluek ere) beren arrastoa uzten dute haietatik eratorritako zeluletan; beraz, arrasto hori ezabatzea izan da lehen helburua. Horretarako, aurrena espermatozoide bat txertatu dute genomarik gabeko obulu batean, eta espermatozoidearen genomaren 20 eremu eraldatu dituzte.

Behin hori lortuta, berriro material genetikorik gabeko obulu batean txertatu dute zelula hori, eta espermarekin batu dute. Horrela, bi genoma dituzten zelula pluripotenteak lortu dituzte. Hurrengo pausoa enbrioia sagu eme baten umetokian ezartzea izan da. Azkenik, bi aitaren geneak dituzten saguak lortu dituzte, amaren generik gabe. ●



ARG.: Zhi-kun Li *et al.*

Haize-erroten sentsoreak bateriarik eta elektrizitate-iturririk gabe elikatzeko sistema bat garatu dute

Turbina eolikoak monitorizatzen dituzten sentsoreak bateriarik eta elektrizitate-iturririk gabe elikatzeko sistema bat garatu du Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaile batek.



ARG.: mstoyanov/Shutterstock.com.

Turbina eolikoetan egiturazko akatsak prebenitzea eta mantentzea gero eta beharrezkoagoa da, parke eolikoak zahartu ahala. Eta horretarako gakoa da sentso mordo bat ezartzea. Gailu horiek dorrean dauden bibrazioak, mekanismoak eta palak etengabe neurtzen dituzte, eta informazio hori denbora errealean bidaltzen dute. Teknologia horretarako erronka garrantzitsuetako bat sentso horiek energia elektriko elikatzea da, ez baita beti eskura egoten behar diren gune espezifikoetan.

J. Carlos Castellano Aldave NUPeko industria-ingenariak inguruko energia biltzeko gailuen familia bat diseinatu du bere doktoretza-tesian. Gailu horiek inguruko energia biltzen dute, hala nola bibrazioak, beroa eta eguzki-argia, eta elektrizitate erabilgarri bihurtzen dute. Castellanak ondorioztatu duenez, gailu horiek energia-iturri fidagarria eta autonomoa eman dezakete aerosorgailuen egiturazko osasuna monitorizatzeko erabiltzen diren sentsoerentzat. ●